



Euskal Artzain Txakurraren ADISKIDEAK-en 2021. urteko egutegirako argazki lehiaketarako oinarriak

Lehiketa honetan edonork **PARTE HARTU** ahal izango du, amateur edo profesionala izan, betiere lehiaketako oinarriak beteko direlarik.

Lehiaketaren **GAIA** Euskal Artzain Txakurra izango da, lletsu zein Gorbeia-koak, helburua arrazari protagonismoa ematea baita.

Aurkeztutako argazki bakoitzeko **AZALPEN ORRI BAT BETEKO DA**. Bertan argazkiaren azalpen bat egingo da eta baita argazkiaren izenburua ipini ere. Bete beharreko inprimakia **“Parte-hartzailearen datuak eta baimena 2021”** izeneko da.

ARGAZKIEK orijinalak eta egilearen jabetzakoak izan behar dute. Ezingo dira lehiaketara aurkeztu lehenago beste lehiaketa batzuetan aurkeztuak edo sarituak izan diren argazkiak. Lehiaketara aurkeztutako argazkiek ezingo dituzte hirugarrengoren bati dagozkion egile eskubiderik urratu.

Argazkien **FORMATUAK** digitala izan beharko du:

- ✓ Argazkigintzako formatu hauetan: .jpg, .bmp y .tiff
- ✓ Irudiek gutxienez **3319 x 2114** pixeletakoak izan beharko dute.
- ✓ Koloretan edo zuri-beltzean izan daitezke.
- ✓ Editatutako argazkiak onartuko dira, betiere testu eta logorik gehitzen ez den bitartean. Editatutako argazkia beste argazki baten mozketara bada, argazki orijinala mozketarik gabe ere bidali beharko da (Orijinala, argazkia aukeratua izaten bada bakarrik erabiliko da, berriz ere enkuadratzeko).
- ✓ Lehiakide bakoitzak gehienez 5 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- ✓ EAT Adiskideak-en esku geratzen da nahiko kalitate ez dutela iruditzen zaion argazkiak lehiaketatik kanpo uztea, batez ere desenfokatuak edo egutegia inprimitzeko erresoluzio gutxi dutenak.

ARGAZKIAK BIDALTZEKO bidaliezaguzu mezu bat argazki@eataelkartea.org helbidera.

- ✓ Irudiaren fitxategi izena argazkiaren izenburua izango da.
- ✓ Argazki bakoitzarekin berari dagokion azalpen orri bete bidaliko da. (“Lehiakidearen datuak” orria)
- ✓ Wetransfer eta MyAirBridge bezelako interneteko aplikazioak erabili ahal izango dira fitxategiak bidaltzeko. EAT Adiskideak-ek deskargarekin arazorik badugu edo esteka iraungitzen bada, fitxategia berriz ere eskatzeko eskubidea izango dugu, eta arazoak denboran irauten badu beste moduren baten bidez aurkeztu beharko du lehiakideak.

Argazkiak **AURKEZTEKO EPEA** urriaren 18ean amaituko da.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA ezingo da errekurritu. EAT Adiskideak-ek lehiaketara aurkeztutako argazkiak erreproduzio eta difusiorako askatasun osoz erabili ahal izango ditu, hauek editatzea ere libre izango duelarik behar izan ezkeru.

EPAIMAHAIA EAT Adiskideakeko elkartekide guztiek osatuko dute eta gehien gustatu zaizkien hiru argazkiei botua emateko eskubidea izango dute, kontuan edukiz inoiz ezingo dutela beraiek aurkeztutako argazkiei boturik eman.

Bozkaketa honetatik egutegia osatuko duten 12 argazkiak aukeratuko dira. Berdinketarik izan ezkeru zuzendaritzako kideek bozkaketa bidez egingo dute aukeraketa.

Aukeratutako 12 argazkien arteko garailea Facebooken egingo den bozkaketa batekin aukeratuko da, eta irabazleari egutegia oparituko zaio.

GALDERAREN BAT izan ezkeru idatzi mezu bat argazki@eataelkartea.org helbidera.

EGILE ESKUBIDEAK ETA DATU PERTSONALAK: Lehiakideek aitortzen dute egile eskubideen legearen babesa duten eta lehiaketara aurkeztutako irudi, testu edo beste edozein motako lanen egile eta erabilpen eskubideen jabeak direla eta hauek ez dutela erabilpena mugatzen duten karga edo bestelako egoerarik, eta horrela balitz EAT Adiskideak izan daitezkeen eskakizun eta erantzunkizun guztietatik libre uzten duela.

Parte-hartzaileen betebeharra da indarrean dagoen legediak eskatzen dituen erabilpen eskubideen baimenak bere gain izatea, lehiaketa honetako arauak betez bertan parte hartu ahal izateko, hala nola, norbanakoak identifikatu daitezkeen edo litezkeen irudiak, datu pertsonalak edo leku babestu edo erreserbatuenak. Parte-hartzailea da berak aurkeztutako lanaren arduradun bakarra eta EAT Adiskideak arlo honetan izan litezkeen erantzunkizun edo eskakizun guztietatik libre uzten du.

Parte-hartzaileek lehiaketarako ezarri diren arau guztiak onartzen dituzte eta era berean EAT Adiskideak Elkartea baimentzen dute lehiaketara aurkeztutako irudi guztiak askatasun osoz erabiltzeko, izan erreproduzio, difusio edo edozein motako ondorengo ediziotarako, baita edozein formatu, euskarri eta difusio lekutan erabiltzeko ere, erakunde ofizialetan, leku pribatu eta publikoetan, lurralde, denbora edo leku mugatik gabe. Era berean baimentzen du mota guztietako komunikazio bideetan erabiltzera, baita bide telematikoetan erabiltzeko ere, betiere erabilpen hau EAT Adiskideak-en estatutoetan baimendutako erabilpenetarako den bitartean.

Azkenik, parteartzeileek baimentzen dute beraiek emandako datu pertsonalak EAT Adiskideak Elkartean horretarako duen fitxategian gehituak izan daitezkeen aurretik aipatu ditugun helburuekin erabiliak eta argitaratuak izan daitezkeen, ala nola, egileak identifikatzeko, parte-hartzaileen zerrenda publikatzeko, irabazleena eta antzekoak izan daitezkeen beste batzuetarako. Parte-hartzaileak bere datuen sarbide, zuzenketa eta ezeztapen eskubidea du, horretarako idazkariarekin harremanetan jarri beharko duelarik idazkaritza@eataelkartea.org helbidean.

OINARRIEN ONARPENA. Lehiaketa honetan parte hartze hutsak berau arautzen duten oinarrien erabateko onarpena dakar berarekin. Lehiaketaren oinarrietan arautzen ez den edozein motako arazo EAT Adiskideak Elkartean hartzen duen erabakiarekin konponduko eta amaituko da.